# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

### HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

## 274

*EBAZPENA, 2014ko urtarrilaren 17koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako erreklamazioak ebatzi eta behin-behineko emaitza horiek behin betiko bihurtzen dituena.*

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak, 2013ko abuztuaren 19ko Ebazpenaz (EHAA, 2013-09-09; 171. zk.), hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko probetarako deia egin zuen.

Deialdi honetako ohiko azterketa gainditu zuten azterketarien behin-behineko zerrenda Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko abenduaren 19ko Ebazpenaz argitaratu zen (EHAA, 2013-12-19; 241. zk.).

Zerrenda honen kontra erreklamazioak aurkezteko epea amaituta, aurkeztutakoak aztertu dira. Gauzak horrela, hau

EBAZTEN DUT:

1.– Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra jarri eta onartu diren erreklamazioen emaitzak www.ivap.euskadi.net/r61-euskera/es helbide elektronikoan argitaratzea agintzea.

2.– Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko azterketen behin-behineko emaitzen kontra aurkeztutako beste erreklamazio guztiak gaitzestea.

3.– 2013ko abenduaren 18ko Ebazpenaz argitaratutako behin-behineko emaitzak behin betiko bihurtzea.

4.– Ebazpen honetan xedatutakoaren kontra, gora jotzeko errekurtsoa ezarri ahal izango zaio Herri Administrazio eta Justiziako sailburuari, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urtarrilaren 17a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.